



Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria
2022ko maiatza - 386 alea

ZENBAKI HONEKIN BATERA

MAKINA-ERREMINTAREN BIURTEKOARI

BURUZKO GEHIGARRIA

MIKEL SANTIAGO
**"FRAIDE IZATEA
MUNDUAREKIN
LOTUTA EGOTEA DA"**



PIL-PILEAN 386

2022ko maiatza

Azaleko argazkiaren egilea:
Egoitz Unamuno.

Aurkibidea

- 4 **Elkarrizketa** Oier Etxebarria
- 6 **Begira** Gutxi batzuk irabazteko...
- 8 **Zer berri** Aktualitateko albisteak
- 12 **Argazki bidez** Soraluze Kooperatibaren ate irekiak
- 14 **Ugaraxo**
- 18 **Erreportajea** Mikel Santiago
- 24 **Kirola** Sora Futbol Taldea, Errugbi Eguna eta udako kirol eskaintza
- 26 **Kultura** Soraluzekeo Musika Eskola eta Erromerixa Eguna
- 28 **Gure artistak** Pablo Arruabarrena
- 30 **Sakonean** Josu Elesgarai Beitia
- 32 **Zerbitzuak** Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak...

IRITZIA

- 3 **Neuretik** Maider Gabilondo
Ukrainan, gatazka guztietan bezala, haur eta nerabeak, kaltetuenak
- 16 **Gutunak** Eflen Flores *Zuei esker*
- 16 **Komiki tira**
- 17 **Hausnarketa** Merlin proiektua
- 17 **Puntua** Iñaki Amuategi *Piztu!*



Pil-pilean herri komunikabidea

TOKIKOM

Argitaratzailea
Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa
Ubane Madera
ubane@pilpilean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilpilean.eus
605 706 086

Publizitatea
publizitatea@pilpilean.eus

Zuzentzailea
Miren Gallastegi

Diseinua
Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)

Maketazioa
Oier Larreategi

Inprimategia:
Gertu Koop.

Banaketa:
Pil-pilean Ekoizpena

Lege Gordailua:
SS-537-2000

Tirada: 2.100 ale

Babesleak



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZEKO
UDALA**

Ukrainan, gatazka guztietan bezala, haur eta nerabeak, kaltetuenak



MAIDER GABILONDO

Traumatizatutako haurrak. Zauritutakoak. Hildakoak. Shockean daudenak. Beldur direnak. Ukrainako krisiak kaltetutako haur, nerabe eta familien beharrianak gero eta larriagoak dira. Minutuero okerragoak. Milioika pertsona indarkerian harrapatuta gera daitezke, hirigune nagusietan eta inguruetan borrokak areagotu ahala. Hirietan armak eta lehergailuak erabiltzeak Ukrainako haurrentzat hondamendia suposa lezake, ondorio tragikoekin, bereziki haurrentzat, krisi guztietan bezala. Otsailaren 24tik, gutxienik 250 haur hil eta 300 zauritu dira Nazio Batuek egiaztatutako txostenen arabera, baina litekeena da biktima askoz gehiago izatea.

Gatazkak biztanleen desplazamendu masiboa ere eragin du. Milioi erdi haurrek ihes egin dute Ukrainatik eta kopuruak gora darrai, Ukrainako barne desplazamenduak ahaztu gabe. Gainera, ehunka etxebizitza kaltetu edo suntsitu dira eta kalte larriak jasan dituzte eskola, haurtzaindegi eta osasun zentroek. Azkenaldian, nazioarteko beste gatazka batzuetan ere sarriegi ikusten dihardugun moduan, bizirauteko oinarrizko azpiegiturak helburu militar bilakatzen ari dira.

Behar humanitarioak biderkatu egiten dira orduero. Ehun milaka pertsonak ez dute edateko urik, ur-hornidurako sistemaren azpiegituran izandako kalteen ondorioz, eta asko dira osasun arreta bezalako funtsezko beste zerbitzu batzuetarako sarbiderik ez dutenak. Oinarrizko mediku-hornidurarik gabe geratzen ari dira. UNICEF bere aliatuekin lanean ari da haur eta familia ahulenengana iristeko, osasuna, hezkuntza, babesa, ura eta saneamendua barne hartzen dituzten oinarrizko zerbitzuekin. Era berean, UNICEF erantzuna zabaltzen ari da inguruko herrialdeetara heltzen diren haur eta familien premiazko beharrak asetzeko eta eskubideak bermatzeko. Moldavia, Polonia, Errumania edo Bielorrusian gune seguruak sortzen ari gara igarotze-bideetan, haur eta amek oinarrizko zerbitzuak eskuragarri izan ditzaten. Ukrainan 7,5 milioi haurren etorkizuna dago arriskuan, baina gatazka honek eragin negatibo handia sortu du beste herrialde batzuen egoeran, Afganistan, Malí, Yemen... Horregatik behar beharrezkoa da berehalako su etena. Horregatik eskatzen da haur guztien babesa lehenetsi dadin. Denena.

UKRAINAKO GATAZKAK ERAGIN NEGATIBO HANDIA SORTU DU BESTE HERRIALDE BATZUEN EGOERAN

“Asko egin daiteke gutxiago kontsumitzeko”

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU
ARGAZKIAK: MIRARI ALTUBE ARRESE

Karakate Bizirik plataformak gonbidatuta, maiatzaren 12an, hitzaldia eskaini zuen Goiener Kooperatibako Oier Etxebarria adituak, Araba Bizirik Elkarteko Valen Arteagarekin batera. Energiaren kontsumoa eta sorkuntza hizpide izan zituen, besteak beste, Goienerreko ordezkariak.

Zein da gaur egungo egoera?

EAEen behar dugun energiaren %90 kanpotik dator. Horrez gain, energia berriztagarria ez den beste guztia energia fosila edo nuklearra da. Bestalde, enpresa handiek balio gabezia handiak dituzte, helburu nagusia irabaziak lortzea da eta pobrezia energetikoa gero eta jende gehiagok pairatzen du.

Soraluzen esan zenuen energia lortzeko edozein gailu ipini baino lehen energia kontsumoa jaitsi egin behar dela.

Bai. Asko egin daiteke gutxiago gastatzeko eta kontsumitzeko. Kontratatuta dugun potentzia begiratzea da lehen gauza. Batzuetan gehiegizko zerbitzu asko ere izaten ditugu kontratatuta: mantenua, aseguruak... erabiltzen ez diren zerbitzuak dira, baina ordaindu egiten dira. Kontsumoari dagokionean, hozkailu batek kontsumitzen duena kontuan hartuta, askoz ere merkeagoa da hozkailua aldatzea eguzki-plakak ipintzea baino; garbigailua 40 gradutan ipini beharrean 30 gradutan ipini edo hotzean erabiltzea; etxeak isolatzea; leihoak aldatzea...

Goienerrek autokontsumo energetikoa bultzatzen du, ezta?

Energia produkzioa egin daiteke, baina askoz ere interesgarriagoa da autokontsumoa eta kontsumo murrizketa. Autokontsumoak abantaila handiak ditu. Adibidez, plaka fotovoltaikoak etxeko teilatuan ipiniz gero, energia sortzen den leku berean kontsumitzen da, garraio galerak (%15-%20) saihestuz; faktura energetikoan aurrezpena dakar; dirulaguntza handiak daude... Autokontsumoaren kasuan, autokontsumo kolektiboa da interesgarria. 10-15 bat lagunek

eginda, bakoitzaren inbertsioa 1.000-2.000 eurokoa izan daiteke, bakarka, berriz, 3.000-5.000 euro ingurukoa. Eta lortzen den potentzia berbera da. Bestalde, inportatea da ondo dimentsionatzea. Plaka larregi ipiniz gero, energia asko sarera joango da, baina merkaturatzaileak ez ditu irabazirik emango, asko jota zure fakturaren energia atala zero izango da eta beste energia guztia enpresa handi horiei erregalatzen ibiliko zara.

Energia komunitateen gainean ere jardun zenuen; zer dira?

Gizartea antolatzeko modu berri bat. Hori klabea da. Entitate juridiko bat da, Europako zuzentzauek diote zein baldintza bete behar diren parte-hartzeari, demokraziari eta jabetzari dagokionez. Adibidez, energia komunitatean herritarrak, merkatariak, tabernariak, enpresa txikiak, ertainak, udalak, elkarteak... egon behar direla dio. Plazentziako guztientzat zabalik egongo litzateke, pobrezia energetikoan bizi direnendako ere bai. Energia berriztagarriekin zerikusia duten jarduerak sustatzen dituzte, aurrezpenak, kontsumo murrizketak, energia sorkuntza... Bestalde, tokian tokiko ekonomiarendako lanpostuak sortzen dira eta ingurumenarendako onak dira, berriztagarriak erabiltzen direlako. Gaur egun, Euskal Herriko 16 udalerritan ditugu abiarazita halakoak sortzeko prozesuak.

Argi dago energia berriztagarriak behar ditugula, baina edozein modutan? Soraluzen Mendigainean ipini nahi dituzte...

Has gaitezen naturari ahalik eta eraso edo min gutxien egiten dioten proiektuetatik, halako asko egin daitezke eta horiek egiten goazen heinean eta beharrak dauden heinean ikusiko dugu zer dagoen egiteko, baina herritarrok adostuta. Hori uste dugu Goienerren. Seguru aski naturari guztiz on egiten ez dioten proiektuak egin beharko dira, baina herritarrek adostutakoak izan daitezela, segura aski halakoak ez dira izango enpresa handiek proposatzen dituzten proiektuen moduko kaltegarriak.



Gutxi batzuk irabazteko...

ARGAZKIA ETA TESTUA: UBANE MADERA ZANGITU

Marina Kalinska, Yeugeny Kalinski, Inna Likarchuk, Tania eta Sofia Gavrilenko, Elena, Sofia eta Anna Kobalenka eta Daria Fikelmaur Soroluzen bizi diren ukrainarrak dira. Batzuek dagoeneko bi hilabete daramatzate gerratik ihesi gurean errefuxiatuta, umetan etxean hartu zituzten harrera familiei esker. Oso latza da bizi dutena. Baina zoritxarrez, ez da berria. Orain dela 85 urte Soroluzeko 84 haurrek eta hainbat gurasok ere gauza bera egin behar izan zuten, Espainiako Gerratik ihesi. Haien ondorengo batzuk Ukrainan daude, orain hango gerran harrapatuta. Historia errepikatzen da. ACNURren arabera, munduan 100 milioi pertsona baino gehiago daude indarrez desplazatuta. Soroluzen, ukrainarrez gain, batek daki beste zenbat. Zenbat bider errepikatu beharko da Historia?







Iker Aldazabal alkatea liburua eta hark dakarren mapa erakusten.

Elosua-Plazentzia liburua argitara

Ekainaren 19an aurkeztuko dute Aranzadiren liburua, Karakaten, autobusak izango dira bertaratzeko eta liburua opari emango dute

Elosua-Plazentzia izenburuarekin, Dolmenen Ibilbideari buruzko liburua landu du Aranzadi Zientzia Elkarteak. 161 orritan, testu zein argazki bidez, estazio megalitikoaren gaineko aurrekariak, egindako lanak, aurkikuntzak eta beste batu dira liburuan. Horrekin batera, ibilbidearen mapa ere badakar, eskuorri modura, dolmen bakoitzaren argazkiarekin eta kokapenarekin batera.

Balioan jarri

"Azken urteetan Elgoibarko, Soralezuko eta Bergarako Udalek Debegesa eta Debemen erakundeekin batera, Dolmenen Ibilbidea balioan jartzeko apustuaren emaitza da liburua eta bertan jasotzen da orain arte Aranzadiren eskutik egindako indusketa

arkeologikoen bilduma. Ondarearen, historiaren eta kulturaren ikuspegitik duen garrantzia azpimarratu nahiko nuke. Bestalde, Barandiaranek orain dela 100 urte hasitako lanari jarraipena ematen zaio eta liburu honek egindako lanaren errekopilazio grafikoa jasotzen du", esplikatu du Iker Aldazabal alkateak.

Autobusa eta liburua doan

Liburua ekainaren 19an aurkeztuko dute, 11:00etan, Karakaten. 15 minutuko saioaren ondoren, 12:30ak arte umeendako tailerrak izango dira eta gero salda eta txorizoa. Udalak autobusa jarriko du Estaziñotik eta bertaratzen direnei liburuaren ale bana oparituko diete. Dena den, ondoren ere izango da liburua erosteko aukera, 5 euroan.

Balkoietakako lore lehiaketa

Balkoi eta leihoetakako lore-lehiaketa antolatu du Udaleko Ingurumen Batzordeak. Lehiaketa ekainaren 27tik uztailaren 4ra izango da eta ekainaren 25a arte dago izena emateko aukera. Sari banaketa uztailaren 11n egingo da, 11:00etan, Plaza Berrian. Lehen saridunak 150 euro eskuratuko ditu eta bigarrenak 75 euro.



lazko lehiaketako irabazlea.

Soraluzen 450 sinadura batu dira

Pentsioak "KPI errearen arabera" igo ditzaten, 1.080 euroko gutxieneko pentsioa ezar dezaten, sistemaren publiko izaera aldarrikatu eta pentsioen azken erreformen murrizketak ken ditzaten eskatzeko 35.000 sinadura eskuratu dituzte, orain arte, Euskal Herrian. Soralezuko, 450 batu dira oraingoz.



Lehen.



Orain.



AINHOA LETE IRASUEGI
BARNE DISEINATZAILEA

Nire bizitza profesionala Barne Diseinuari dedikatu diot, hainbat lan burutuz; etxebizitza eta lokal komertzial desberdinen proiektuak egin ditut, eta baita hauen obrak zuzendu. Altzari pertsonalizatuak ere diseinatu ditut. Orain ZANGITU BARNE DISEINUA enpresan lan egiten dut. Barne Diseinua, barne proiektuetan artea aplikatzen denean sortzen dena da; lekuak ezkutuan duen edertasuna azalera da nere helburua. Proiektu bat aurrean dudanean zera egiten dut; espazioaren ustiapen egokiena aztertzen dut, argiari etekinik handiena atera, material egokiak aukeratu, koloreak aukeratu... eta pentsatutakoa obran errealitate bihurtzeko behar den aurrekontua atera. Proiektatutako diseinua obra aurretik adostutako aurrekontuarekin burutuko dela ziurtatzeko ezinbestekoa den zuzendaritzaren arduraduna izaten naiz. **Ilusioa, irudimena, sormena, pasioa...** dira nire ardatza.

Bergaran naukazu, buruan dakazun proiektutxo hori errealitate bihurtu nahi baduzu!

ZANGITU BARNE DISEINUA
ainhoalete@yahoo.com • 635 731 268
ESTUDIOA: Telesforo Aranzadi 2,
Bergara
Instagram: zangitubarnediseinua



Lehen.



Orain.



Lehen.



Orain.



Soraluzeko eta Elgoibarko herritarrak Karakatera egin zen mendi martxan.

Kontrako ahotsak ugaritzen

Soraluzekoak moduan, Elgoibarko Udalak ere aho batez onartu du Karakaten zentral eolikoa eraikitzearen kontrako mozioa

Gero eta ahots gehiago dira Karakaten zentral eolikoa eraikitzearen kontra. Aste honetan, Elgoibarko Udalak aho batez onartu du Karakate Bizirik plataformak aurkeztutako mozioa. Bestek beste, gogorarazi dute

Elgoibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean (HAPO) Karakate-Irukurutzeta mendilerroko Elgoibarko magala natura-intereseko gune izendatua dagoela eta HAPON bertan zehazten direla inguru

horietarako onar daitezkeen eta onartu ezin daitezkeen jarduerak, parke eolikoak jartzea debekatuta gelditzen delarik. Horrekin batera, iragarri dute proiektu horren kontra agertzeaz batera, bi hilabeteko epean Karakateko Parkea Antolatzeko Plan Berezia idazteko konpromisoa hartu duela Elgoibarko Udalak, "udal-plangintzan jasotako zehaztapenak gehiago zehazteko". Halaber, Elgoibarren idaztekoa duten planaren antzekoa idazteko proposatu diote Soraluzeko Udalari, "interes naturalistiko duen eremu horri balio bateratua emateko".

200 bat lagunekoa martxa

Bestalde, maiatzaren hasieran Karakateko zentral eolikoaren kontra egindako mendi martxa benetan jendetsua izan zen; 200 lagun inguruk parte hartu zuten, gehienak Soraluzekoak eta Elgoibarkoak ziren, baina urrutiragotik ere etorri ziren bisitariak. Mendi martxako paraideen artean, bi herrietako hainbat udal ordezkari ere izan ziren.

Hortz klinika Erabaki 1 Tel.: 943 75 55 13

Javier Alonso Mediku Estomatologoa K.Z. 48.000.591

Katia Guzmán Odontologoa K.Z. 48.061.548

27 urteko esperientzia odontologia, protesak, odontopediatria, ortodontzia, inglantzak, estetika... Zerbitzu radiologiko onakorra (DRG) eskariera, orto eta telei.

Kontulan **ABOKATUAK**

Erreza sutsuena • Administrazio lanak
Traffeko buruzkaria • Lan-arloko aholkularitza
Enpresen kontabilitate/ideoluzioak • Kontabilitatea

Santa Ana 13 - 1. eak. 20590 Soraluze
Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 61 82

ARRANO taberna

Etan! eta gozatu etxeko pintxoak

Etxaburueta 6

KLB6

Kalaberran 6 943 57 74 26
Mutilaren-aren modagaitza

BSB **VERO MODA** **ISOLID** **AB** **new balance**

Sukalde tradizionala

Armendi Jatetxea

Eguneko menua
Asteburuetan menu berezia
Karta
Burduntzian erretako bildotsa
Etxeko Irtoak
Souffles

Tel. 943 75 10 02

Etxabe Harategia

- Etxaba eramaten da
- Ekaraguzak hartzen dira
- Soraluzeko baserrietako produktuek
- Etxeko tripaki eta txistorrak

Etxaburueta 5
Telefonoa: 943 75 23 75

Debabarrena BIEMH azokan

Lau urteko geldialdiaren ostean, aurtten, ekainaren 13tik 17ra bitartean batuko dira berriz makina-erremintako ekoizle eta bezeroak BIEMH 2022 azokan. 26 herrialdetako 1.200 enpresak baino gehiagok parte hartuko dute Barakaldoko BECen, tartean Debabarrenekoak ere bai, euren produktuak, berritasunak eta zerbitzuak bezeroei erakutsi eta harreman komertzialak egiteko gogoz.

BIEMH bueltan da

DEBABARRENEKO 32 ENPRESAK HARTUKO DUTE PARTE BERTAN

AFM Makina-Erreminta Ekoizleen Elkartearen ustez, ekainaren 13tik 17ra bitartean BECen egingo den BIEMH 2022 makina-erremintaren azoka inoiz baino beharrezkoagoa da, "gaur egun bizi dugun egoera konplexuan". Horregatik, azken hamarkadan egon den parte-hartzaile kopuru handiena bilduko da BECen: 26 herrialdetako 1.200 enpresa baino gehiago. "Izen-emaiteen kopurua eta aurten egin diren antzeko ekintza txikiagoetan atzeman dugun giro ikusgarria kontuan hartzen baditugu, BIEMHren 31. edizioako parte-hartzea historikoa izango dela aurreikusi dezakegu", diote AFMtik.

Enpresa horien artean Debabarreneko 32 izango dira: Itziar-Deba industrialdean dauden Alteyco, Chiron, Dexis, GER, Gurutzpe, Mosnic-Irudex, Tecnifuelle eta Zeatz; Elgoibarko Berkoa, Burge-lu, Cometel, Danobat, Fanuc, Geminis, Ideko, IMH, Maher, Sarriki, Smartpm eta Unceta; Eibar-ko Egasca, Izalan, JAZ Zubiaurre, Metronic, Neurtek eta Tekniker; Ermuko Blum, Cortesa, Innocut eta Havel; Mendaroko Urkunde; Soralueko Eles-Ganter; eta Osintxuko Soralue.

Parte-hartzaileak sei pabilioitan banatuko dituzte, azpisektoreka: industriarobotak, manipulazio-sistemak, kontrolerako softwareak,

industria-automatizazioak, tratamenduak, osagaiak, gehigarriak... Eskualdeko enpresa gehienak lehen pabilioian egongo dira kokatuta.

Makina-erremintaren sektorea oso bizkor ari da garatzen. Hori dela eta, azterketa eta gogoeta egiteko asmoz, BIEMHk arreta berezia jarriko die berrikuntzei eta aurrerapen teknologikoei. Horrela, fabrikazio aurreratuan dabilzan enpresek atal bereziak izango dituzte. Esaterako, 3D inprimaketan jarduten dutenak, ADDIT3D atalean elkartuko dira eta digitalizazioan espezializatutakoak BeDigital atalean.

Hitzaldiak eta festa

Enpresek euren produktu eta zerbitzuak eskaintzeaz gain, zenbait hitzaldi antolatu dituzte BIEMHren inguruan. Hala, nazioarteko 55 hizlarik sektoreari dagozkion gaiak jorratuko dituzte: industria-mantenuaren berrikuntzak, automatizazioa eta ro-

"Atzeman dugun giro ikusgarria kontuan hartuta, parte-hartzea historikoa izango dela aurreikusi dezakegu"



botika, eraldaketa digitala eta fabrikazio aditiboa. Horiek eta azokaren gaineko beste hainbat eduki zuzenean eskainiko dituzte BIEMH TV telebista-katearen bitartez: produktu berriak, sektoreko profesionalen lekukotzak...

Bestalde, hilaren 15ean, eta giro lasaian negozio-harremanak sustatu asmoz, BIEMH Fest izeneko jaialdia antolatuko dute Bilboko kaleetan, 19:30etik aurrera.

Euskal industriaren oinarri

Orain dela egun gutxira arte AFM makina-erremintaren klusterreko presidentea izan den Cesar Garbalenak esan bezala, makina-erremintaren sektorean diharduten enpresak euskal industriaren oinarri dira, eta berebiziko garrantzia dute Debabarrenean. Makina-erremintak pisu handia izan du eskualdeko industriaren historian (horren erakusgarri, Elgoibarren dagoen Makina-Erre-



Makina-erremintaren azoka Barakaldoko BEC erakustokian.

BIEMH

inflazio-tasa handia, Txina bezalako merkatuetan sartzeko zailtasunak...), 2021ean esportazioak %23,41 hazi ziren 2020arekin alderatuz eta AEB, Italia, Alemania, Txina, Frantzia, India, Turkia, Portugal, Mexiko eta Erresuma Batua izan ziren hemengo ekoizleentzako merkatu nagusiak. Eskerak %30 hazi dira 2019ko datuekin alderatuz eta %69,2 2020koekin konparatuz gero.

Datu horiek kontuan hartuta, sektoreak baikor begiratzen dio etorkizunari, nahiz eta Errusiaren eta Ukrainaren arteko gatazkak ondorioak ekar ditzakeen. Izan ere, AFMko enpresek Errusiarekin zituzten harreman komertzialak eten dituzte, baina klusterrekoek diotenez “kaltetutako operazioak ondo estalita daude eta, gainera, sektorearen salmenten %1-3 besterik ez ziren egiten Errusian, batez ere aeronautikarekin, trenekin eta energiarekin zerikusia zutenak”.

Aurreikuspenak betetzen badira, sektoreak pandemia aurreko salmenta kopuruak gaindituko ditu

minta Museoa) eta gaur egun ere enpresa asko dira bailaran sektore horretan dihardutenak.

AFMren azken txostenaren arabera, makina-erremintaren sektoreak susperraldia bizi du pandemiak eragindako gorabeheren ondoren eta, 2021ean fakturazioa %18 hazi ostean (igoera 1.571,20

milioi eurokoa izan da), 2022an %7-10 igotzea espero dute. Horrela, aurreikuspenak betetzen badira, sektoreak pandemia aurreko salmenta kopuruak gaindituko ditu.

Iazko bigarren seihilekoan zailtasunak izan ziren arren (osagaien eta materialen falta eta garestitzea,



Enpresek harremanetarako baliatzen dute azoka. BIEMH

Elesa Ganter Iberica

“GURE ASMOA DA AURTEN BISITARI KOPURU ERREKORRA JASOTZEA”

Elesa+Ganter Iberica SL Soraluzeke Mendiola industrialdean kokatuta dagoen enpresa da, zehazkiago esateko, mundu mailako osagaien merkatuan liderrak diren Italiako Elesak eta Alemaniako Ganter etxeek 1997an sortu zuten joint ventura. Filialak makinentzako osagaiak ekoizten ditu: bisagrak, imanak, erroberak, ixteko eta estutzeko elementuak... Azken 11 urteetan, hazkunde ikusgarria izan du %750 hazita eta sektoreko lider bihurtzea lortu du Iberiar Penintsulako merkatuan.

Jesus Blanco Zuzendari Orokorrak azaldu du: “Pandemiaren ostean, sektorearen egoera esponentzialki hobetu da eta gaur egun enpresaren egoera oso ona da. 2021ean, gure enpresak marka historikoa ezarri zuen 8,5 milioi euro fakturatuta”. Filialak 25 urte bete dituen honetan, lantaldea 27 pertsonak osatzen dute eta Soraluzeke lantokiak 3.000 metro koadro baino gehiagoko instalazioak ditu, gehienak enpresak duen stock zabalari eskainiak.

Blancok azaldu duenez, azken urteotan aldaketa handiak izan dira merkatuan eta lan egiteko moduetan: “Gaur egun, unean uneko eskariekin lan egiten da, bolumen txikiko baina balio erantsi handiko ekoizpenetan. Produktu merkeak Europatik kanpo egiten dira. Gero eta herrialde arragoetara saltzen dugu, eta, gero eta konplikatuagoa da dena. Baina ez dago besterik, hau horrela da. Edo jarraitzen duzu edo hiltzen zara. Ez dago besterik”.



Elesa Ganterreko komertzial taldea. ELES+GANTER



Produktuen gama. ELES+GANTER

Azokari begira

Blancoren ustez, ekainean BECen egingo den makina-erremintaren biurteko azokak “funtsezko garrantzia” du sektorearentzat eta sektorearen egoeraren “adierazle ezin hobea” da, “erakusketari kopuruagatik eta bertan ezagutu daitezkeen produktu eta teknologia berriengatik”.

Aurtengo azoka arrakastatsua izango dela aurreikusten du Blancok: “Bi urteren ostean, fabrikatzaile eta hornitzaileekin harreman zuzena izateko gogo handia dago. Gure asmoa da bisitari kopuru errekorra ontzea”. Horretarako, Elesa Ganterrek azken urteotan merkaturatu dituen produktu berri guztiak erakutsiko ditu bere Barakaldoko azokan. Zuzendari Nagusiak garbi du zein den Elesa Ganterren helburua aurtengo edizioan: “Enpresaren presentzia mantentzea eta gure jarreraren sendotasuna berrestea”.

“Bi urteren ostean, fabrikatzaile eta hornitzaileekin harreman zuzena izateko gogo handia dago”

JESUS BLANCO

Danobat Group

DANOBATEK AEROSORGAILUEN PALAK EGIAZTATZEKO SOLUZIOA ERAKUTSIKO DU BEC-EN

Danobat Group Mondragon Taldeko kooperatiba talde arrakastatsuenetako bat da, makina-erremintaren sektorean prezisio eta tamaina handiko makinak ekoizten dituenen, Danobat eta Soraluze markapean. Hornitzen dituen sektore nagusien artean aeroespaziala, tren, automobilgintza, energia, petrolio eta gasa daude. Hala, Deba bailarako taldeak iaz 226 milioi euro fakturatu zituen eta, gaur egun, 1.300 langile ditu munduko hainbat herrialdetan zehar dituen 15 ekoizpen guneetan banatuta: Deba bailaran, Alemaniari, Erresuma Batuan, Herbeheretan...

Pello Rodriguez Danobatgroupeko Zuzendari Orokorraren esanetan, makina-erremintaren sektoreak, "oro har", pandemia aurreko salmenta- eta esportazio-mailak berreskuratu ditu eta 2022ari begira dio, urte hasierak "ekitaldi ona" iragarri duela, "merkatu nazionala eta automobilgintza zein aeronautika bezalako sektoreak moteldu diren arren". Nazioartean ere "Errusia eta Ukrainaren arteko gatazkak eragindako hornidura-kateen egoera konplexua eta arazo logistikoak eta Txinako Gobernuaren COVID zero politikak sortutako ziurgabetasuna gorabehera", sektoreak aurrera egingo duela uste du, "industria-sektore gehienak inbertitzen eta eskaerak egiten" jarraitzen dutelako. Danobatgroupi dagokionez, "2022ko lehen lauhileko erritmoari eutsiz gero", 2019ko datuak erreperatutako dituelakoan da Rodriguez.




Danobatek puntako teknologiarekin ekoiztutako makina. DANOBAT

Azokarako nobedadea: Endity Zuzendari Orokorraren esanetan, BIEMH azoka "erakusleio ezin hobea da sektorean dauden azken garapenak erakutsi eta sektoreko eta ekosistema osoko eragileekin elkarreragiteko ere". Alde horretatik, Zuzendari Orokorraren ustez biurtekoa aukera ona da Danobatgroupeko kooperatibek, "Danobatek, Soraluze eta Idekok, euren ibilbide zabalaren berri" eman dezaten. Gainera, aurten, "lehen aldiz", balio erantsi handiko piezen ekoizpenerako makinez gain, Endity Danobatgroupeko enpresa berriak "aerosorgailuen pa-

lak egiaztatzeke eratu duen soluzioa" erakutsiko du BECen. Horixe izango da Danobatek azokara eroango duen nobedade nagusia.

Bestalde, aurten, "pertsonek eta talentuaren aldeko apustua eginez", Danobatek Working Talent Hub industria-enplegu foroan ere parte hartuko duela iragarri du Rodriguezek.

"Erakusleio ezin hobea da azken garapenak erakutsi eta sektoreko eragileekin elkarreragiteko"




Kooperatibako langileak. DANOBAT

Merlin proiektua Deba ibaian

Europako ibaiak biziberritzeko Merlin proiektuak Deba ibaian hamar presa kentzea proposaten du, tartean, Soraluezko lau.

Joan zen martitzenean, 'Deba ibaia hobetzeko tailerra' egin zuten Tolarekua aretoan eta EAEn Merlin proiektu europarraren bultzatzaile diren EHUK eta Gipuzkoako Aldundiak egitasmoaren berri eman eta iritzia galdetu zieten hurreratu ziren hamabost bat herritarrei. Bertan izan ziren, besteak beste, Arturo Elosegik (EHU) eta Felipe Alvarez Aldundiko Obra Hidraulikoaren Zuzendaria.

Presak kentzeko proposamena Elosegik eta Alvarezek azaldu zutenaz, Merlin proiektuak Europa osoko 17 ibaitan eragin nahi du, ibai horiek biziberritzeko helburuz. Ibai horietako bat da Deba ibaiak, eta proiektuak aurreikusten du bertan 10 presa kentzea,



Neurketak ibaian. EHU

“dagoeneko erabiltzen ez diren hamar presa”. Soraluzeri dagokionez, 4 presa dira kenduko liratekeenak: Zuloagako eta Oleagakoa erabat eta Malmeronekoa (herriaren erdialdekoa) eta Igaratekoa (SAPA parekoa) partzialki.

Tailerrean azaldu zutenaz, arrainen joan etorria erraztea da presak kentzeko arrazoi nagusienetakoa, izan ere, presak ibaiko oztopo gaindiezinak dira arraintzat eta beste espezie askorentzat eta ibaian gora edo behera mugitzea eragozten diete. Horrekin batera, beste hainbat arrazoi ere aipatu zituzten, esaterako: sedimentu kutxakorren eta espezie inbaditzaileen gune diren ur geldiak ezabatzea, uraren autodepurazioa erraztea eta uholdeen arriskua gutxitzea.

Aldeko eta kontrako iritzia

Tailerrean bildu ziren herritarrek askotariko iritzia agertu zituzten presak kentzeko asmoarekiko, alde nahiz kontra. Oro har, herritarrek informazio gehiago eskatu zuten, baita ibaiaren egoera hobetzeko neurri osagarriak ere: ur zikinaren isuriak bideratzea, plastikoen arazoa konpontzeko neurriak. Proiektuaren bultzatzaileek adierazi zutenaz, azken hitza Soraluezko Udalak izango du eta erabaki hori datozen hilabeteetan hartu beharko du.

Izen-ematea zabalik Pirinioetako Bidea ekimenean parte hartzeko

Uztailaren 2an, Gure Eskuk eta ANCK bultzatutako Pirinioetako Bidea-Via Pirinena ekimenak 300 gailurretik gora argiztatu nahi ditu Pirinio osoan, autodeterminazio eskubidearen alde. Soraluezko Gure Eskuk jakinarazi duenez, plazentziatarrei egokitu zaien mendia Nafarroako Kokori (773 m) da eta Bortzirietako Etxalar

herrian dago. Ekimenean izena emateko epea zabalik dago izenaeman.gureesku.eus helbidean eta bariku arratsaldero kalean ipiniko duten mahaian (5 euro federatuentzat eta 10 euro ez federatuentzat). Hala, Soraluzetik autobusa antolatzeke asmoa dute, 18:00etan atera eta 02:00etarako bueltatuko dena.





Pirineotako Bidea ekimenaren irudia.



Begira Soraluceri

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIAK: SORALUCE KOOPERATIBA

Harrokeria barik, baina egiten duen lanarekin harro. Emaiza erakusteko, parez pare zabaldu ditu atea Soraluce Kooperatibak maiztzean, Soraluce Summit jardunaldietan. 1.000tik gora lagun izan dira lantegiaren instalazioak eta makina berritzaileak ikusten. Bezeroei zuzendutako bisitan, nazioarteko 187 enpresatako 365 lagun izan dira Soralucen, AEBtik, Alemaniatik, Turkiatik, Finlandiatik, Espainiatik, Brasildik, Canadatik... etorritakoak. Soraluceko langileei, familiei eta erretiratuei zuzendutako bisitan, berriz, 600 lagunek parte hartu zuten. Halaber, haien bisita aprobetxatu eta Soralucek Osintxun izango duen planta berriaren lehen harria jarri zuten. Lantegi berria 2023ko martxorako bukatuko dute.





Ekainera bidean ekintza ugari

OPORRAK GERTU DAUDELA GERO ETA NABARIAGOA DA ESKOLAKOON ARTEAN

TESTUA ETA ARGAZKIAK: PLAENTXI HERRI ESKOLA

Beroa geletan, ikasle eta irakasleon azken esfortzuak, jardueraz betetako azken hiruhileko batekin uztartzen dira. Azken hilean landutako jardueren artean, honako hauek zerrenda ditzakegu: gailu digitalen inguruko LH5eko ikasleentzat formakuntza, maila askok egin dituzten hainbat irteera, LH1eko ikasleek izan dituzten txiten jaiotzak...

Horrez gain, hemen dituzue zuekin bereziki partekatzeko aukeratu ditugunak.

Ingeleseko barnetegian

Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleak Urnietako Pakeleku Barnetegira joan ziren maiatzaren 9tik 13ra. Bertan, ingeles hizkuntzan murgiltzeko (Play&Say) egonaldietan parte hartu zuten bost egunetan zehar, goiz, arratsalde zein gauetz hainbat jarduera eginez. Ingelesez komunikatzea izan zuten bide bakarra, beraien irakasleek euskaraz zein gaztelaniaz komunikatzen ez baitzekiten, eta erronka oso ondo bete zutela esan behar da. Aspaldiko partez, irteera luze batez gozatu ahal izan zuten, batez ere hasierako urduritasunak eta etxeko falta gainditu ondoren!

HH2koen gela

Jolastuz, esploratuz eta esperimentatuz gauzatzen dute



6. mailako ikasleak Urnietan, ingeleseko barnetegian.



6. mailako ikasleak.



HH2ko umeak esperimentatuz.

gure haurrek bere garapen kognitiboa. Horregatik hainbat material, testura eta esperientziekin gauzatu ditugu ikasturte honetako ekintzak. Azken hiruhilekoan, HANDITZEN-HANDITZEN erronkari ekin diogu. Haurrek jaiotzetik gaur arte izan duten garapenaren eta aldaketen inguruan lanketa txiki bat egiteko asmoz.

Elkarren lehiaketa

Elkar argitaletxeak antolatutako ipuin eta ilustrazio lehiaketan 127 ikaslek hartu dute parte. Horietako 35 ikaslek ipuin lehiaketan hartu dute parte eta 92 ikaslek ilustrazio lehiaketan. Nazaret Hernández LH2B mailako ikaslea suertatu da sarietako baten irabazle eta bere gelakide guztiek Laboral Kutxak eskainitako txango batean parte hartzeko aukera izango dute.

Plaentxi denda

Lehen Hezkuntzako ikasleek kompetentzia matematikoa inguru erreal baten erabili ahal izateko denda prestatu dugu eskolan. 1. Mailatik 6. Mailara bitarteko ikasleek hartzen dute parte eta bertan neurriak, pisua, edukiera eta diruaren erabilera lantzen dituzten beste batzuen artean. Horrez gain, euskara erosketa egoera batean erabiltzeko aukera ere ahalbidetzen die ikasleei proposamen honek.



HH2ko ikasleak garapen kognitiboa lantzen.



Elkar argitaletxearen ipuin eta ilustrazio lehiaketetako irabazleak.



Kompetentzia matematikoak lantzen, denda fisikoa eta guzti baliatuta.

GUTUNAK

Zuei esker

EFREN FLORES

ZAPOREAK PROIEKTUKO KIDEA

ZAPOREAK proiektutik emandako ekarpena eta laguntza eskertu nahi dugu. Zuek bezalako pertsonak eta taldeek posible egiten dute gure proiektuak aurrera egitea eta guk lanean jarraitzea. Zuen laguntza oso garrantzitsua da milaka haurrek, gizonak, eta emakumeak elikagai duina jasotzen jarrai dezaten Europan "euren ametsa" itxaroten duten soro eta asentamenduetan.

Lesbosen "atxilotuta" dauden pertsonen beharrak eta egoerak oso larriak izaten jarraitzen dute, non gure proiektuaren elkarlana eta existentzia oso beharrezkoa baita oraindik pertsona hauen guztien egoera hobetzeko. Zaila da eta kosta egiten da denboran irautea

gurea bezalako proiektu batekin, baina zuek bezalako pertsonak esker, denborari aurre egiten jarraitu ahal izango dugu eta Grezian harrapatuta, erabateko abandono egoeran, dauden pertsona guztientzat janari duina bermatzen. Zuen inplikazioa benetan garrantzitsua da eta horregatik eskerrak ematen dizkizuegu, behin eta berriz. Badakigu eguna iristen den momentuan Ermua, Eibar, Elgoibar, Mallabia, Deba eta Soraluzetik zuetako bakoitzak dena emango duzuela kanpainan eta behar den guztia mobilizatzen duzuela Lesbosen gizartearen berotasuna eta maitasuna senti dezaten. Ez dugu ahazten Ermua eta Eibarren artean hasi zela erronka eta hortik egin duzuen lan guztiari esker, gero eta herri gehiagok bat egiten dutela erronka solidarioarekin.

Eskerrik asko Zaporeak posible egiteagatik eta Kara Tepeko Errefuxiatu Kanpamenduko errefuxiatuei duintasuna berreskuratzen jarraitzen laguntzeagatik. ZAPOREAK-etik ziurtatzen dizuegu ahal den bitartean, eta zuek bezalako jendearen laguntzaz, ahal dugun guztietan jarraituko dugula lan hau egiten.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

KOMIKI TIRA



HAUSNARKETA

Merlin proiektua

EHUk eta Aldundiak Deba ibaian erabiltzen ez diren 10 presa kentzeko proposamena aurkeztu zuten astelehenean. Zer iritzi duzu?



ANTTON ALBERDI
NATURAZALEA

"Uste dut beharrezkoa dela presak kentzea edo moldatzea, funtziorik ez dutenak behintzat. Iraganeko funtzioa bete dute eta orain ibaiako ekosistemari kalte besterik ez diote egiten. Dirua Europatik dator eta uste dut galdu ezin dugun aukera dela."



JUAN CARLOS ASTIZARAN
HISTORIAZALEA

"Astakeria itzela, Ibaia eta herria gehiago hondatuko lituzke. Presak bota bai, baina ez dakite gero ibaia eta herria zela geratuko diren. Soraluzetarrok behar duguna da ur garbia, ekosistema hobea, kirolak, mikrozentralak... Erreferenduma behar da."



ANA MAIZTEGI
ZINEGOTZIA

"Hobeto ulertuko nuke plan integral baten barruan: saneamendua, oztopoak, ekosistema, mantenimendua... Zaila da irudikatzea presak kentze hutsak ibai leheneratuko duenik. Galduko dugun ondarea, berriz, berreskura ezina".



JOXEAN IÑURRIETA
HERRITARRA

"Plazentziak aukera aparta du Europar Batasunetik datorkigun proiektu anbiziotsu bat eskuratzeko. Ez diezaiozun beldurrik izan ekarriko digun paisaia aldaketari, urak eta ur ertzetako faunak eta florak hobera egingo baitute. Igerian egingo dugu berriz".

PUNTUA



IÑAKI AMUATEGI BASAURI

Piztu!

Gure Eskuko kideok 2013an erabakitze eskubidearen aldeko mugimendu herritarra osatu genuenean, bagenekien herritarron aktibazioa zela arrakastarako giltza. Sinplea bezain zaila!

Soraluzen are zailagoa bihurtu da kontua, mendigainean jarri nahi dizkiguten dorre erraldoien gaineko erabakia ostu nahi digutelako. Baina ez dago besterik, herritarron determinazio eta mobilizazioarekin proiektua gerarazi eta Tapiak berak ere ezingo du entzungorrena egin!

Era berean, erabakitze eskubidea errespetatu eta nazioarteko komunitateak entzun eta ikus gaitzan, uztailaren 2an, Pirinioetako 300 tontor argizatuko ditugu. Euskal Herriko eta Kataluniako entitate sozialek elkarlanean antolatutako lehen mobilizazio herritarra izango da. Plaentxiarrok ere, eibartarrok batera, gure aletxoak jarriko dugu egun horretan Etxalarko (Bortzirriak) Kokori gaina (723 m) argizatuz.

Guztion eskubideen defentsan ekimen horretan ere parte hartzeko deialdia luzatzen dizuet, gailurrera igota ala herriko zubi nagusian elkartuta; argiak piztu eta gure deiadarra ozen entzun dadila Jaizkibeleetik Cap de Creuseraino.



"Kontsumismoko bizitzatik ateratzeak on egiten du"

MIKEL SANTIAGO ARIZAGA FRAIDEA

Maiatzaren 15ean, Mikel Santiago Arizagak (Soraluze, 1973) 'profesa' edo bizitza osorako frantziskotarren ordenako fraide izateko zina egin zuen Arantzuko basilikan. lazko uztailetik bertan bizi da beste 21 anaia frantziskotarrekin batera.

Elkarrizketa: **Nagore Telleria (Euskadi Irratia)**. Testuaren moldaketa eta argazkiak: **Egoitz Unamuno**.

Zer moduz?

Ondo, ondo, ondo. Hemen pozik. Arantzazun.

Gaur zortzi baino lasaiago?

Bai, bai, lasaiago.

Gaurkoa da frantziskotar bizitzako zure aurrengo igandea, ezta?

Bizitza guztirako profesa egin ondorengoa, bai. Fraide banaiz 2016tik, baina orduan egin nuen profesa urtetik urtera berrizten joan naiz eta joan den igandean egin nuena izan zen bizitza guztirako frantziskotar izateko profesa.

48 urte dituzu eta une honetan Arantzazuko frantziskotarren artean gazteena izango zara.

Bai. Hemen Arantzazun gazteena naiz momentu honetan.

Eta zu baino hurrengo zaharragoa denari zenbat urteko tartea ateratzen diozu?

Badaude bizpahiru 60 urtekoak, beraz, 10-12 urte.

Frantziskotarren sotana marroia gainean duzula imajinatu behar zaitugu?

Orain momentuan ez daramat, baina erabiltzen dugu elizarako, ekitaldi batzuetarako. Baina egunerokotasunean gehienok ez dugu erabiltzen.

Mikel, zergatik frantziskotar eta zergatik Arantzazu?

Arantzazu niretzat jada ume-umetatik esanahi handia daukan lekua da. 12 urterekin Arantzazura etorri nintzen seminarioan ikastera. Ez dakit ondo zergatik. Nire buruari askotan galdetu diot eta ez daukat erantzun argirik, baina burura etorri zitzaidan hona etorri nahi nuela eta hala esan nien gurasoei. 7. maila eta 8. maila hemen egin nituen eta nik uste dut orduan hazi bat geratu zitzaidala barruan eta Arantzazurekiko maitasun handi bat hartu nuela. Gerora, bide hau utzi egin nuen arren, nik uste dut hazi hori barruan neukala. Gero, hausnarketa eta bizitzaren egoeraren ondorioz, berriro itzuli naiz hona. Frantziskotarrak ezagutu nituen oso umetan eta beti iruditu zait San Frantziskok erakutsitako bidea kristau izateko bide berezia dela eta erakartzen nauena. San Frantziskoren mezu edo bizitzaren helburu nagusiak dira anaia eta txikia izatea. Horregatik da Frantziskotarren ordenaren izen ofiziala Anaia Txikien Ordena. Fedea bizitza anaitasunean, elkarrekin, taldean eta txikitasunean: apaltasuna, pobretasuna...



Mikel Santiago.

Bizitarako beharrezkoak diren gauzak dira, baina nolabait jainkoari jarraitzeko eta oztupo izan daitezkeen beste gauza guzti horiek albo batera lagata.

Eta ekologista ere bai?

Baita. San Frantziskok ere bere garaian (11-12. mendekoa da) bazeukan kreaioarekiko miresmen handi bat. Berak sortutako guztiaren aurrean ikusten zuen jainkoaren presentzia, jainkoak hitz egiten zuela eta horrek eramaten zuen sortutako guztiarekiko errespetua eta miresmena izatera. Eta horrek badauka ba gaur egun ekologismoa esaten diogun horren jatorri bat, ezta?

Esan duzunarekin lurrari oso lotuta irudikatzen zaitugu, Gandiagaren bidetik.

Bai, bai. Nik uste dut fraide izatea munduarekin, gizartearekin eta gizakiarekin lotuta egotea dela. Alde batetik, jainkoaren presentzia bai gauza guztietan eta bai beste gizakietan ere ikusten delako eta Jesukristoren jainkoa historian parte hartzen duen jainko bat delako. Egunerokotasunean parte hartzen duen jainko bat eta gurekin batera bizitza honetako bizibide

hau egiten duena. Horrek eramaten gaitu lurrari bere osotasunean loturik bizitzera; lurrari, kreatutakoari eta historiari.

Hala ere, kontenplaziorako bakarrik ez da inor bizi. Pentsatzen dugu Arantzazun izango dituzula zeregin zehatz batzuk ere.

Bai. Gezurra ematen badu ere, Arantzazun lan handia dago. Badaukagu gure lehen egitekoa, otoitza, eta badaukagu gure otoitz orduak goizean, eguerdian eta iluntzean. Gero bestelako lanak ere tokatzen zaizkigu, adibidez, jende nagusia daukagu hemen eta tokatzen zaigu anaia nagusi horiei arreta eskaintzea. Gero, ba liturgia eta horrelakoak prestatzea. Arantzazun duela urte askotatik egin da ahalegin berezia Euskal Herriko kristauei igandeko meza eta liturgia zaindua eta ederra eskaintzeko. Eta horrekin batera, nik uste dut tokatzen zaigula jendeari gure arreta eskaintzea, entzutea. Edozein arrazoiengatik datorrenari gure harrera ona egin, entzun eta gure bizitzaren testigantza eskaini. Nola bizi garen gu, zergatik bizi garen horrela, zerk eramaten gaituen horrela bizitzera... Gure fedearen arrazoia edo zergatia azaltzea.



Mikel, santutegia atzean duela.

Jendea joaten al zaiuzue zerbaiten bila?

Bai, bai. Jendea etortzen da. Batzuetan, besterik gabe, barruak askatzera edo bakerik gabe dagoelako. Badago jendea espresuki etortzen dena oso ondo jakin gabe zergatik edo zeren bila, eta atea jotzen duena. Eta bada beste jende bat, igual atea jo ez arren, inguruan dabilena, elizara sartu-irten bat egiten duena... Nik uste dut gaur egun jendeak gero eta gehiago bilatzen duela bakea edo espiritualtasuna eta horrek ekartzen duela horrelako lekuetara. Hona, Arantzazura ere bai.

Alde horretatik, gizartea nola ikusten duzu fedearrekiko, beste sinesmen batzuekiko, espiritualtasunarekiko... Premiak handituta daude?

Nik uste baietz. Egon da edo badago erlijiotasun antolatua edo erakundetuaren aurkako edo aldentzeko joera, baina neurri berean nik uste dut badagoela espiritualtasunaren bilaketa gero eta handiagoa ere.

Nik uste dut espiritualtasuna gizakion dimentsio bat dela, landu beharrekoa, bizitzako beste dimentsio batzuk bezala. Eta bueno, ba

seguru aski, urte batzuetan, arrazoiarekin, elizarekiko egon den jarreragatik, jende askok dimentsio hori ahaztu egin du. Baina nik uste dut gaur egun badagoela berraurkitze bat edo dimentsio hori lantzeko kezka bat berriro eta jendea, nolabait, bila ari dela. Niri pena ematen didana da jende askorentzat akaso guk ez dugula asmatzen espiritualtasun egarri horri erantzuna ematen. Badaude espiritualtasuna lantzeko beste aukera batzuk, orain gizartean ikusten ditugunak. Jende bat ari da bide batzuk egiten espiritualtasunean, beste bide batzuetatik eta nire ustez pozgarria ere bada, baina niretzat kezka da guk ez asmatzea egarri bat daukan jendeari erantzuten.

Gainerakoan, nola ikusten duzu gizartea? Gaur egun, frantziskotarraren bizitzeko modutik oso aldentuta ote gaude?

Nik gizartean ikusten dudana da jende asko behintzat zurrumbilo batean bizi dela. Lana. Etxe askotan ikusten da, seguru aski etxeko kide denek lanean egon behar dute hilabete bukaerara heltzeko, etxeko hipoteka ordaintzeko, seme-alaben ikasketak ordaintzeko, oporrak eta abar. Eta halako zurrumbilo batean sartuta, jende askok ez dauka astirik ere pentsatzen jartzeko bizitzan nola bizi nahiko lukeen. Eta gero bai, badago halako kontsumismoko eskaintza handi bat denok harrapatzen gaituena. Pentsatuz gure indarrak hor jarrira zoriontsuago eta pozago biziko garela. Horren aurrean, frantziskotarran asmoa da, San Frantziskori jarraituz, erakustea bizitzaren muina eta esentzia beste leku batean dagoela. Kontsumismo bizitza zurrumbilo azkar horretatik ateratzek on egiten duela, bakea dakarrela. Guk espresuki, kristau ikuspegi batetik diogu jainkoa gure ondoan daukagula bizitzaren bide honetan eta hori berri on bat dela. Hori hedatu, zabaldu nahi dugu gure inguruan.

Arantzazuko frantziskotarren etorkizuna nola ikusten duzu? Une honetan 22 anaia zaudete bertan.

Etorkizuna?

Ikusi egin behar. Momentuz behintzat, hemen, Euskal Herrian, nire atzetik ez dator inor eta ikusi egin beharko da nola bizi beharko dugun. Anaiarte txikiago bat izanda, gure bizitza eta gure lanak beste era batera planteatu beharko ditugu. Baina bueno, beldurrik gabe, esperantzaz eta lasaitasunez, eta ikusiz zer baldintza datozkigun. Egia dena da, momentuz, atzetik ez datorrela inor eta begiratu beharrekoa izango dela.



Mikelek basilikako organoa jotzen du domeketako mezan.

"GIZARTEAN IKUSTEN DUDANA DA JENDE ASKO ZURRUNBILO BATEAN BIZI DELA."

"NIRETZAT KEZKA DA GUK EZ ASMATZEA EGARRI BAT DAUKAN JENDEARI ERANTZUTEN"

"GUTXIEN ESPERO NUENA ZEN GURE PELLOK -PELLO ZABALAK- HORREN GUTXI IRAUNGO ZIGULA"

Ez dugu esan, baina orain zeu zara Arantzazuko organista.

Bueno, oso komatxo artean jarrita, baina bai. Zeren eta nik organoa oso-oso gutxi jotzen nuen lehen eta hona etorri nintzenean, iazko uztaila inguruan, ikasten hasi nintzen, baina gutxien espero nuena zen Pellok –Pello Zabala-, gure Pellok, horren gutxi iraungo zigula. Bera izan da organista Arantzazun azkenengo urte luzetan eta bera faltatu zaigunean, esan didate ‘jo beharko duzu zuk igandeko mezan?’ eta hasi naiz, oso modu apalean bada ere, jotzen edo mezatan laguntzen, baina bueno, ikasten ari naiz oraindik eta justukoa. Horraino.

Nola ari zara ikasten? Irakasleren batekin?

Musika eskolara joaten naiz. Oñatin badaukat organo irakasle bat eta gero Bilbon ere Sociedad Coral Bilbokoak dauzkan eskaintzetara ere joaten naiz organoa ikastera, bi lekutara. Pixkanaka-pixkanaka ari naiz ikasten.

Fraide sartu baino lehen zer ikasi zenuen?

Zuzenbidea ikasi nuen. Zuzenbidean lizentziatua naiz.



Mikel Santiago 1885ean santutegiari ateratako argazkiaren aldamenean.

Lagunek eta, zer esan dizute? Ikusiko zuten zure erabakia sendoa dela eta pozik zaudela, hartu duzun erabakiarekin baina aldi berean 'ederra galdu diagu' bat ere izango da beharbada.

Galdu galdu ere ez naute egin. Soralezetik ez naiz oso urrun bizi, momentu honetan behintzat. Baina egia da gaur egun nire lagunetak asko ez direla fededunak edo fededunak izanda ere, ez direla elizara joatekoak. Egia da jende askorentzat oso zaila dela ulertzea horrelako erabaki bat. Dagoeneko badira bospasei urte nire lagunei esan niela bide hau hartu nahi nuela, behintzat formakuntza prozesu batean sartuko nintzela.

Batzuk esan didate ez dutela ulertzen, baina errespetatu egin dute beti. Jendeak orokorrean animatu egin nau aurrera jarraitzera, ikusten baldin badut hau dela nire bidea, ba, zoriontsu izateko ahalegina egin dezadan bizitzan.

Lagunak eta etorri zaizkizu Arantzazura?

Bai, bai. Hori ere esan beharra dago. Joan den igandeko ospakizunera Soralezeko lagun asko etorri ziren eta beste leku batzuetakoak ere bai.

Umetan txistularia nintzen Soralez, orduan Domentx Uzin buru zuen txistulari talde bat etorri zen, baita Iñigo Alberdi organista ere eta ofertorioan oso pieza hunkigarria jo zuten ('Baratze bat'). Hasieran hasi zen txistu bakarra, organoak suabe. Gero sartu ziren txistu guztiak danborrarekin. Niretzat hunkigarria izan zen.



Arantzazuko ikasleak, 1985ean. Mikel, zutik, jertse zuriarekin.

Doinu hori bizitza guztirako edukiko dut bihotzean sartuta. Amaieran txistua jo zuten eta agurra ere dantzatu zidaten. Egia esan, hori eskertzekoa izan zen.

Eta norbait Arantzazura joaten bada, non topatuko du Mikel Santiago?

Bueno, ba segun eta zein ordutan. Goizetan, otoitzaren ondoren, gure enfermerian ibiltzen naiz laguntzen. Lan gosariak eta pastillak ematen jaikitzen joaten diren neurrian. Organoa ere praktikatu beharreko gauza da, orduan ba organoa jotzen ere harrapa nazakezue. Ikasketak

jarraitzen ere ari naiz. Fraide egin ahal izateko teologia ikasketa batzuk egitea eskatzen da, gradu mailako ikasketa batzuk esan dezagun eta horiek burutu ditut, baina hori pixka bat sakontzeko ikasketak egiten jarraitzen dut. Online ari naiz Deustuko Unibertsitateko Teologia ikasketekin. Beraz, pantailara konektatuta ere egon naiteke eguneko ordu batzuetan. Eta bestela, otoitzean, otoitz ordua tokatzen baldin bada, edo hemen, etxe barruan, tokatu daitezkeen anaiarteko mila lan txiki egiten, etxe handia da eta.

Profesa, bizitza osorako zin-egite ekitaldia

Maiatzaren 15ean, domekan, egin zuten Mikel Santiago Anaiarte Frantziskotarreko kide izendatzeko elizkizuna. Altarean sei abade eta aurrean hirehun bat pertsona zirela (tartean senide eta lagun asko), txistularien eta organoaren doinuez, kantuez eta dantzaz (agurra dantzatu zioten), egin zuen Mikelek bizi osorako zina edo 'profesa' Arantzazuko basilikan.

"Hunkituta"

Mikelek hunkintuta bizi izan zuen elizkizuna. "Halako errituetan badaude momentu hunkigarri asko, ezkontza batean edo egon daitezkeen bezala. Baiezko bat ematen duzunean, ikusten dituzuenean hainbeste lagun inguruan, familia... Bizitza osorako anaiarte baten parte izatera pasatzen zara eta momentu bat izaten da besarkada ematen diozuna altarean dauden anai bakoitzari, eta momentu hunkigarri batean zaude" adierazi du.



Profesaren elizkizuna Arantzazuko basilikan. UBANE MADERA



Elizkizunaren ostean, lagun koadrilarekin. UBANE MADERA



Sora Rugby Taldeko jokalaria eta hainbat guraso Ezoziko futbol zelaian entrenatzen.

Dena prest III. Errugbi Egunerako

Ekainaren 12an, domeka, sei errugbi taldek topaketa egingo dute Ezoziko Futbol Zelaian, kirol hori herrian bistarazteko

Ekainaren 12an, 10:30ean hasi eta 14:00ak arte errugbi topaketa izango da Ezoziko futbol zelaian. Arrasatetik, Bidasoatik, Eibartik, Mutrikutik, Plentziatik, Mungiatik eta, noski, Sorluzetik bertaratuko

dira errugbi taldeak, guztiak ere 12 eta 10 urtez azpiko umez osatutakoak. 12:30ak arte euren artean jardungo dute eta ondoren, 13:00etatik 14:00ak arte, bertaratzen diren guztiendako errugbi jolasak

izango dira. "Errugbia herritarrei erakustez eta haiekin partekatzeaz gain, gure helburua da gure herrian errugbian jardun ahal izatea beste edozein kirolean moduan, errugbia ikasi, ikusi, praktikatu... eta horregatik antolatzen ditugu halako egunak", dio Enekoitz Igartuak, Sorako Rugby Taldeko arduradunetako batek.

Gaurko protagonista

Hark esplikatu duenez, aurtengo Errugbi Eguna umeei zuzendutakoa da: "Eurak dira etorkizuneko jokalaria, kirol honen etorkizuna, eta pentsatu dugu aurrerantzean Errugbi Eguna umeei zuzentzea, biharko jokalaria gaurko protagonista izan daitezen. Gero, urtean zehar, egingo dugu beste zerbait beste kategoria batzuetako taldeekin, baina oraingo egun hau umeei zuzendutakoa izango da", azaldu du Igartuak. Ekaineko Errugbi Egunean, kirola bera partekatzeaz aparte, aurten estreinatu duten ekipazio berria ere erakutsiko dute, Fogaslerren laguntzarekin egindakoa.

Udan kirolarekin lotutako jarduerak egiteko eskaintza zabala

Udako oporretarako kirol eskaintza oparoa egin du Sorluzeko Udalak. Batetik, Uda Kirola izenpean, ur-jarduerak, mendi irteera, naturan jolasak, kirol jolasak eta beste izango dituen astebetean proposatu du. Bestetik, Igeriketa intentsiboko ikastaroak egiteko aukera eskaini du, baita ikastaro

laburragokoak egiteko ere: surfa, skatea, espeleologia edo Hontza abentura parkera joatea.

Izen-emateak ixtear

Eskaintza guztia Kukumixoren udaleku irekien aparteko egunetan antolatu dute, umeek nahi adina jarduera egin ahal izateko. Halaber, udako kirol

eskaintzaren baitan ere, ekintzetarako proposatutako egutegiekin umeei aukera ematen die ekintza bat baino gehiago egiteko. Hori bai, eskaintza guztia LH3tik aurrerako umeei zuzendutakoa da.

Eskaintza guztietako izen-emateak zabalik daude eta Uda Kirolerako eta Sustapen Jardueretan parte hartzeko epea datorren astean itxiko da. Igeriketa intentsibokoa, berriz, ekainaren 10era arte izango da zabalik.

Denboraldi gazi- gozoa Sorarentzat

Gorengo mailako taldea jaitsi egin da; jubenilek, berriz, denboraldi "borobila" egin dute eta infantilak aurrera doaz Gipuzkoako Kopan

Datorren denboraldia berritasunekin hasiko du Soraluze Futbol Taldeak. Talde nagusia mailaz jaitsi da gorengo mailatik erregionalera eta, besteak beste, entrenatzaile berria izango dute. Horrez gain, Sorako zuzendaritzak espero du talde nagusian aldaketa gehiago ez egotea, batik bat jokalariei dagokienez: "Gorengo mailakoen kintetan jokalaria gutxi daude eta jokalaria horietako asko beteranoak dira. Zuzendaritzatik guztiei eskatu



Sorako infantilak.

nahi diegu datorren denboraldian taldean segi dezaten. Bi urte barru jubeniletako asko izango dira gorengo mailan, baina datorren urtean ez eta horregatik eskatu nahi diegu aurtengo denboraldian taldean segitzeko, taldeari eusteko" esan du Alberto Goenaga Sorako presidentek.

Jubenilak eta infantilak ederki Gainerako taldeei dagokienez, berriz, Sorako zuzendaritzakoak oso pozik daude emaitzekin. "Jubenilek oso denboraldi borobila egin dute. Maila bat igo dute eta bi maila igotzeko puntuan egon dira, benetan ondo. Infantilak, berriz, Gipuzkoako Kopan oso ondo ari dira, final laurdenetara ailegatu dira dagoeneko eta futbol eskola ere oso ondo joan da".

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa




ETORKIZUNA
ORAIN
Es Futuro

Erronka berriei aurre egiteko, aldatu beharra dago.

Iritsi da **TicketBAI.**

Enpresek aurrera egiten dutenean, Gipuzkoak aurrera egiten du.



TicketBAI
GIPUZKOAN

gipuzkoa.eus/ticketbai

Dantza eta paella Ezozin

Ekainaren 11n, Erromerixa Eguna egingo da Ezoziko plazan, egun osoko egitarauarekin. Izen-ematea zabalik dago.

Urrats dantza taldeak herriko eta herritik kanpoko dantzazaleak batu nahi ditu Ezozin eta horretarako, egitarau oparoa prestatu du.

Goiztiarrenak 11:00etan abiatuko dira kalejiran Ezozira eta han mokadutxoak egin ondoren, 12:30ak aldera, adin guztietako dantzazaleek plaza-dantzak dantzatuko dituzte herriko musika osatutako fanfarrearen eta bailarako arrabitarrien laguntzaz. Arratsaldean, berriz, 18:00etan hasiko da erromeria, Eingo folk taldearekin.

Bazkaritan, paella

Bitartean, sukaldariak paella prestatuko dute eliza ondoan eta 14:30ak aldera, dantzazaleak elizpera batuko dira bazkaltzera. Bazkaritarako



Dantza saioa Ezozin, iaz.

izena Iratxo goxodendan edo online eman daiteke (gaztetxoek 5 euroan eta helduek 15 euroan).

Auzoko jairik ez

Bestalde, Ezoziko auzoko jai batzordetik jakinarazi dute aurten ez dutela auzoko jairik antolatuko.

Kaleko margo lehiaketa

Udaleko Kultura Batzordeak antolatuta, Kaleko Margo Lehiaketaren 28. edizioa egingo dute domeka honetan, maiatzaren 29an. Nagusiendako zein haur eta gaztetxoentzako lehiaketa izango da. Nagusiendakoan izen-ematea 09:00-10:00ak bitartean izango da eta umeen lehiaketa, berriz, 11:00etatik 13:00etara bitartean izango da, Plaza Berrian.

Peñalverren lana Oreka Arten

Ekainaren 3tik 29ra bitartean, Rafael Peñalver margolari madrildarraren "Diskurtsoari gorazarre" erakusketa ikusi ahal izango da kulturaguneko erakusketa-gelan eta Gabolats kaleko Oreka Art galerian. Peñalver 70eko hamarkadan hasi zen margotzen eta ordutik etengabe eguneratu du bere jardun artistikoa.

IZAGUIRRE
Igelberritza

Erakik berriak • Kalitateko emaitza
Erretornak - Era guztietako igelberritza

50 urteko esperientzia - 610 638 913 - 649 867 299

Jaiaren plazarrak, bertatik bertara

Batzoki

eguneko menua
antzerkiaz
kanta eta musikak

opartariekak eta
harbarguzak
enkaigo bereziak

Berria eta
lagun artetik
bestakak

Erretorak: 943 71 20 16

ELIZPE
HORTZ KLINIKA

Zure gertako hartz klinika,
puntu puntako teknologijekin lan
egiten dugu. Cad-Cam sistema
bertzatuta erabiltzen dugu.

Elizburu, 3 behea
SORALUZE
Tel: 943 75 25 67
e-mail: elizpe1@gmail.com

Orduetgia:
Astehenetik ostiratera:
10:00 - 13:00 eta 16:00 - 20:00

MENDIZABAL
okindegia

Ogia - Prentsa - Gosariak

Astehenetik
ostiratera:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00

Larunbatak eta
igandeak
08:30 - 13:15

Kalebarren 10
Tel.: 943 75 13 99

FOGASLER
ITURGINTZA

943 75 16 46 (Soraluze) - 943 71 82 49 (Oñati)
fogasleriturgintza@gmail.com

Txoko

Eguneko menua,
plater konbinatuak,
hamburgeriak,
ogartekak,
nabak,
pizkak,
gosaria...

Entzuguak egiten dira
Tel. 943 75 17 89



Soraluzeko Musika Eskolako hainbat ikasle eta irakasle.

Ate irekiak musikazaleei

2022-2023 ikasurterako aurreinskripzioa zabalik dute musika eskolan eta bihar, zapatua, ate irekiak egingo dituzte eskaintza ezagutarazteko, Plaza Zaharrean. Bestalde, logoa eta web orria estreinatu dituzte.

Zabalik da Soraluzeko Musika Eskolan 2022-2023 ikasturte berrirako aurreinskripzioa egiteko epea, ekainaren 10era arte. Bertako zuzendari Domentx Uzinek azpimarratu duen moduan, "herritar guztiendako aproposa den eskaintza" dute. Dena den, eskaintza bertatik bertara ezagutzeko aurrez aurreko aukera eskainiko dute, bihar, zapatua, egingo duten ate irekien jardunaldien bitartez. Hitzordua da 10:30etik 13:00etara Plaza Zaharrean.

Metalezkoak bueltan

Bestalde, musika eskolako zuzendari Uzinek jakinarazi du

datorren ikasturtetik berriro ere metalezko instrumentuak ikasteko aukera izango dela. Aurrematrikula egiteko lau modu daude: musika eskolara bertara joan daiteke, Frontoi



SORALUZeko
MUSIKA EskOLA

Musika eskolako logo berria.

kalera; telefonoz deitu daiteke, 943 75 15 44 zembakira, email bat bidali daiteke soraluzemusika@gmail.com helbidera edo honako helbidean labur.eus/o1xTd dagoen formularioa bete daiteke.

Soraluzeko Musika Eskolak 19 instrumentu ikasteko aukera eskaintzen du. Berritasun modura, datorren ikasturtean bueltan izango da metalezko instrumentuak ikasteko aukera, tronpeta, tronpa, tronboia eta bonbardinoa, Susana Plumed irakasle berriaren eskutik.

Ikasturtea irailean hasi eta ekainean bukatzen da eta hamar hilabeteotan, musika ikasteaz aparte, dozenatik gora ekitaldi egiten dituzte ikasle-irakasleek eskolan bertan zein herrian. Bestalde, iaztik, 4-8 urte dituzten haurrentzako bekak eskatzeko aukera ere eskaintzen du Soraluzeko Musika Eskolak.

Logo eta web orri berriak

Horrez gain, aurren, bestelako berritasunak ere baditu herriko musika eskolak: logo eta web orri berriak. Logoari dagokionez, Pablo Galarraga soraluzetarrak sortu du, Marras barraskiloaren iruditik abiatuta. Web orriari dagokionez, berriz, honakoa da helbidea: soraluzekomusikaeskola.eus. Ikasturteko jardueraz gain, eskolaren gaineko informazio orokorra dakar web orriak.

**SORALUZeko MUSIKA
ESKOLAK WEB ORRIA
ETA LOGOA
ESTREINATU DITU
AURTEN**

Soinujole nekaezina

11 URTEREKIN HASI ZEN SOINUA JOTZEN ETA ORAINDIK ERE HORRETAN DIHARDU

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIAK: PABLO ARRUABARRENA

Orain dela ez asko, zaila zen jaietan, kalean eta ospakizunetan Pablo Arruabarrena (Gasteiz, 1959) soinua jotzen ez ikustea. 17 urterekin kalean jairik jai eta ospakizunez ospakizun jotzen hasi eta, horren sarri izan ez arren, oraindik ere horretan dihardu Pablo Arruabarrenak. "Nik egunero jotzen dut, garajea daukat bat, abade etxean beste bat... lau soinu ditut", kontatu du.

Pello Zabala maisu

Soraluzeko soinujoleari etxetik datorkio musikarekiko zaletasuna. Aita Manuel Arruabarrena panderojolea zuen eta anaia, Juan Manuel, soinua ikasten ibili zen Eibarren, Felix Aranzabal *Angiozarko itsuarekin*. Pablo, berriz, Arantzazuko seminarioan hasi zen musikan, 11 urterekin: "Arantzazun, solfeoa eta musika derrigorrezko ikasgaiak ziren. Pello Zabala zen gure maisu. Pianoarekin hasi nintzen, baina ni beti joaten nintzen soinua hartzera. Pello beti atzetik, *hartu pianoa!* Baina nik soinua nahi nuen. Beti erakartzen ninduen soinuak eta erraztasuna ere banuen", dio.

Parranden girotzaile

Ikasketak amaitu eta herrira bueltatzean, 17 urterekin kalean



Txilarre eta Pablo musika jotzen eta Zabala dantzan.

hasi zen soinua jotzen. "Kalejirak, Finalista Egunean, Bai Euskarari ekitaldian... Sasoi batean beti soinuarekin ibiltzen nintzen. Gaur egungo ambientea eta ordukoa desberdinak dira. Lehen denok estimatzen zuten taberna batera sartu eta soinua jotzea. Gaur egun ez. Tabernetan musika ipinita dago eta hura kendu beharra dago soinua jotzeko. Gu, berriz, parranden girotzaile ginen. Auzoko jaietan ere asko jo izan dugu, San Inazioen, Iruren, San Andresen, Ezozin Eganen

LEHEN DENOK ESTIMATZEN ZUTEN TABERNA BATERA SARTU ETA SOINUA JOTZEA

kontzertuaren atsedendian eta eurekin batera..."

Girotzaile zeregin horretan, lagun bat baino gehiago izan ditu Arruabarrenak ondoan, panderoa jotzen, Ernesto, Osintxuko Martxel, Iraolabeitiko Ana Belen eta *Txilarre*. Euren kabuz ez ezik, kontratatuta ere jarduten zuten: "15 urte inguruan, asteburu askotan ezkontzetan, bazkarietan... ibili ginen jotzen, batez ere *Txilarre* eta biok, baina azkenerako lana zen eta aspaldi laga genuen hori", gaineratu du soinujoaleak.

Elizan eta Plaentxia Kantuan

Asteburuetakoz zereginerik laga arren, azken urteotan, soinua beste taula batera eramane du Arruabarrenak: elizako aldarera. Berak jartzen die musika herriko elizkizunei: "Elizan hasi nintzen Luis Gomez etorri zenean.



Ernesto Oregi panderoa jotzen eta Pablo Arruabarrena soinuarekin, SAPAko Ekonomatoan.

Mezetara joan nintzen eta han ez zegoen ez musikarik eta ez beste ezer. Zerbait egin behar zela pentsatu nuen eta organoa jotzen hasi nintzen, laguntzarren, dena den ni ez naiz organista. Hiru lagun handirekin batera jotzen nuen, Luis Elortzarekin, Manolo Etxaberekin eta Begoña Txurrukaren eurak abesten eta

ni jotzen. Orain bakarrik nago. Orain hiletetan-eta jotzen dut organoa eta umeen elizkizunetan soinua. Horrez gain, Plaentxia Kantuan ekimenean ere jotzen dut".

Soinua jotzeaz gain, soinurako konposatu ere egin du Arruabarrenak, bost pieza inguru: "Bi fandango, bi arin-arin eta balts bat; baltsa partituran jaso zuen Domentxek. Besteak Arrate Irratian grabatuta daude. Ana Belen Laskurain eta biok joan ginen".

Bestalde, soinujole ez ezik, tronpeta-jotzailea ere bada Arruabarrena: "Iban Urizarrekin ikasi nuen musika eskolan. Eta lehen danborradan jo nuen tronpeta, Marina Alberdirekin. Soinua eta gero, tronpeta da instrumenturik politena. Txarangan ere ibili nintzen urte batez tronpetarekin. Orain dela 20 bat urte".



Bai Euskarari ekimenean, Ezozin.

**SOINUA JOTZEAZ
APARTE, SOINURAKO
BOST PIEZA
KONPOSATU DITU
ARRUABARRENAK**



Plaentxia Kantuan ekimenean.

"Berriro jaioz gero, zestalari izango nintzateke"

JOSU ELESGARAI BEITIA SORALUZEEKO UDALTZAINA ETA ZESTALARI OHIA

TESTUA UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIAK: JOSU ELESGARAI ETA U.M.

Josu Elesgarai Beitia (Mutriku, 1970) Soralezko udaltzain da 2019tik. Baina lehenago oso bestelako lanbidea izan zuen: zestalari. Aitaita Jose Migel Beitiaren eskutik hasi zen zesta-puntan. 80ko hamarkadan Mutrikuko Danok Bat eskolan ibili zen. 1992an Ameriketarako fitxatu zuten eta 10 urtez izan zen han profesional. Etxera bueltatzean, afizionatu mailan segitu zuen, 2008tik 2014ra.

Ameriketan non ibili zinen?

Bridgporten eta Milforden (Connecticut). Hasieran bietan, baina denborarekin Bridgporteko frontoia itxi egin zuten. Gero Milfordekoa itxi zutenean (2001), azken urtea Newporten egin nuen. 2003an bueltatu ginen.

Zelan fitxatu zintuzten?

Momentu hartan (1992) Andoni Oianguren eta biok ginen afizionatu mailan puntan genbiltzanak. Bridgporteko intendentea (player managerra) etorri zen eta probak egin ondoren, hark kontratatu ninduen.

Han zelan?

Hasierako urteak oso gaitzak. Ez genekien hizkuntza eta edozer egiteko itzultzailea behar genuen. Ohitu egiten zara horretara eta ez duzu hango jendearekin harreman handiegirik, gainera beti genbiltzan jokatzan, ensaiatzen... Bederatzi funtzio genituen astean. Baina familia izan genuenean, etxea erosi eta orduantxe hasi ginen bertakoekin harremanetan eta kalean ikasi genuen hizkuntza.

Zer dira funtzioak?

Astelehen goizetan 5 bat partida jokatzan genituen eta arratsaldean beste horrenbeste. Halako bakoitza funtzio bat da. 7 tantotara dira partidak. Intentsuak, baina fisikoki ondo eusten zaio. Han burua izan behar da hotza, tanto bat galduz gero, bankillora joan eta txanda iritsi arte zain egon

HAN 7 TANTOTARA DIRA PARTIDAK, INTENTSOAK, BAINA FISIKOKI ONDO EUSTEN ZAIO

beharra dago, hoztu egiten zara, lesioendako kaltegarria da... Konpetentzian oinarritzen da, zenbat eta gehiago irabazi, soldata handiagoa. Hori bai, ikusteko polita da.

Izar handiak izan zineten, ezta?

Bai, pilotaria izar modura zegoen ikusita, baina gure kirola zen gutxien ordaindutakoa. Han beisbola, futbola eta saskibaloia dira erregeak. Milioiak irabazten dituzte. Guk ez; hala ere, Euskal Herrian ezin ziren gure hango soldatak ordaindu.

Bueltatu zarete?


Alabak, txikiena batez ere, amonarekin. Gu lehen urtean bakarrik.

Senideak ere badituzu zesta-puntan.

Anaia Asier eta osaba Patxi Beitia. Anaiak 27 urte egin ditu profesional moduan, iaz laga zuten, Ameriketako azken frontoia (Dania) itxi baino zertxobait lehenago. Tijuanan egon zen hasieran. Biok geneukan Tjuanarako kontratua, baina apustuak tarteko, bi anaia elkarren kontra ibiltzea ez zen begi onez ikusten. Gainera, Bridgeporteko nire kontratua irten zen segituan. Urte berean joan ginen anaia biak, bera



Josu Elesgarai Beitia Mildford-eko Most Win saria jasotzen.



Udaltzain zestalaria.

martxoan, ni abenduan. Pentsa, ama. Baina gure ilusioa zen eta asko lagundu ziguten gurasoek. Hasieran kolpe fuertea izango zen, baina gure ametsa lortu genuen, beraz...

Ametsa lortu zenuten; zer behar da horretarako?

Jokatu eta jokatu. Benetan hor ikasten da. Kontrarioak desberdinak dira. Bakoitzarekin zelan jokatu, harekin zer ez egin... Hori jokatzen ikasten da.

Gutziz lagata duzu?

2014tik. 2008ko krisiarekin langabezia geratu eta burua argitzeko berriro hartu nuen zesta eta neure kontu hasi nintzen, afizionatu mailan, 2014ra arte. Urte hartan lesioa izan nuen eta laga egin behar izan nuen.

Bizimodu hura faltan igartzen duzu?

Asko. Pilotarion artean badugu esatera bat: berriro jaiosz gero, pilotari (zestalaria) izango nintzateke.

Zelan ikusten duzu zesta-punta?

Oraingo gazteek ez dute erreferenterik. Gurea Ameriketara joatea zen. Hori bukatu da. Pilotari onak badaude, baina Euskal Herrian Diputazioek sartu beharko lukete eskua, EiTbK gehiago telebisatu,

ez bakarrik torneo batzuk. Babeslerik ezean pilotariak ezingo dute hortik bizi. Ez bada babesten, galtzeko arriskuan dago. Gainera kirol garestia da. Zesta batek 600-800 euro balio du, pilota batek 100 euro pasa.

Sarietako batzuk

- Milford-en Most Win 1993
- Newport-en Most Win 2002
- G.R.A.V.N. 2011(EHko txapeldun)
- XXVIII. San Fausto txapeldun 2011
- Gipuzkoako txapeldun 2011/12
- G.R.A.V.N. Euskadiko Azpitxapeldun 2012
- XXIX. San Fausto Azpitxapeldun 2012
- G.R.A.V.N. 2012 (EHko txapeldun)
- Gipuzkoako Herriarteko txapeldun 2013
- Gipuzkoako Herriarteko txapeldun 2014
- EHko herriarteko txapeldun 2014

NEWS & NOTES

It's time to start believing in Beitia. The 1988 Milford Jai-Alai wins champion returned to the front this year to defend his title with some fanfare and little hope. But that last little effect on his performance, he continues to do what he does best, win private games. As the season approached its halfway point Beitia was on the verge of becoming the first player this season to win 100 games. And he's doing it against premier competition. After starting the season in the middle games, Beitia has been playing regularly in the full-on size games. Says Milford promoter, manager Jose Lizarazu, "I believe Beitia's showing he can play at this level. I'm interested in seeing if he can sustain it over the course of the season."

An unusual request was overheard in the players' cogen in early July. A desperate fan had asked enough, "Please Beitia, I'm begging you." He said, "Give somebody else a chance to win a game." Indeed, for a stretch of five weeks in July it seemed Beitia could do no wrong. From July 1 through 13 the legendary superstar played in 48 games and won 22 times. His win percentage over that period was an incredible .328 and his all-time mark an equally astounding .310. He's winning games at a more normal pace now, but continues to lead the roster by a wide margin in win percentage.

Please make note of the change in our Labor Day weekend schedule. The front is open on Sunday night, September 4, but closed on Labor Day night on Monday, September 5. Five admission coupons found in the Summer 1984 Front Front for Monday night, September 5, will be honored at any performance (except promotion nights) in September.

Milford Jai-Alaiko berripaperean.



Newport-eko jalditza baten katela.

ZERBITZUAK

ZORION AGURRAK



Beñat Larrañaga Gallastegi
Maiatzaren 23an, 3 urte. Zorionak txapeldun! Patxo haundi bat etxekuen partez, batez be Markelen partez.



Gorka eta Idara
Maiatzaren 2an eta 16an, 41 eta 3 urte. Zorionak etxeko guztion partez eta oso ondo ospatu. Muxu askoooo.



Paula Muñoz Mendo
Apirilaren 1ean, 11 urte. Zorionak maitxia! Oso haundi egiten ari zara oso azkar! Asko maite zaitugu! Etxekoan partez!



Luar Akarregi Quintanilla
Maiatzaren 21ean, eguzkixari bira bat! Urtauak irri txikiz koloreztatu dozkuzuz, ederra bizipoza! Zorionak laztana!



Eneko Gonzalez Armengol
Maiatzaren 18an, 11 urte. Zorionak. Ondo ospatu zure eguna. Segi oin arte moduan. Etxekoan partez.



Ander Cruz Usobiaga
Maiatzaren 23an, 8 urte. Zorionak Ander maitxia. Ondo pasa eguna. Pilla maitxe zaitugu! Etxekoan partez.



Julen, Unai eta Jesus
Maiatzaren 16an, 19an eta 20an, 1, 42 eta 61 urte. Zorionak! Familia guztiaren partez.




Santos eta Idurre
Maiatzaren 4an eta 6an 71 eta 7 urte. Zorionak bikote. Asko maite zaituztegu. Etxekoak.



Begoña eta Nora
Maiatzaren 24an urtebetetzea. Zorionak etxekoan partez!



Bidane Lazpita Ormaetxea
Maiatzaren 14an, 3 urte. Zorionak etxeko guztien partez!



Angelika
Ekainaren 8an 83 urte. Zorionak!



Kattalin
Ekainaren 9an 8 urte. Zorionak!

JUAN MARI ARRANDEGIA
ARRANDEGIA
MERCATO PLAZA - 943 75 24 40

Arria trankila
Etxera eramateko zerbitzua
Bakarrak hartzen ditugu

Soraluzeko Kooperatiba Elkarte
190etk eskakiz

Arrandegia, janaria, erropak, etxeko tresnak, etxera eramateko zerbitzua

Kalebarren 4
Tel.: 943 75 13 45

Astelehenetik ostiralera:
09:30 - 13:30 eta 17:00 - 19:45
Larribak: 09:30 - 13:00

MGS Seguros

Veronica Gallarraga Gertukoa eta segurua

Astelehenetik ostiralera: 10:00 - 13:30 eta 17:00 - 19:30

Santa Ana 13
645 744 055

Almar
SERVICIOS

Reparadegia Estetika Soloriana

Gabildeg 4, Artea Tel.: 943 75 13 13 - 682 51 34 04

TXURITXU GOZOTEGIA

Astelehenetik ostiralera: 08:30-13:00 eta 16:30-20:30

Larribak: 08:30-13:00

Gosariak, oja, premia, pastelik, borbolik...
Etxera eramateko zerbitzua

Tel. 943 75 24 43

Griado
Fruitategia Urdaitegia

- Erikanguak Whatsapppea
- Etxerako zerbitzua
- Berriak & delicatessen

Astelehenetik ostiralera:
09:00-13:00 eta 17:00-20:00
Larribak: 09:00-13:00

629 958 536

Bidelagun euskaltzaletasunean



aras



laibi
ELECTRICIDAD

ESKELAK

ESKER ONA

Ramon Gabilondo Luarizaristi



2022ko apirilaren 25ean hil zen, 81 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Gabilondo Garmendia sendia.

ESKELA

Benito Oregi Leturiondo



2022ko maiatzaren 16an hil zen, 92 urte zituela.

Zeure zintotasuna, elkartasuna, hurbiltasuna, ta irribarre ederraren irudia, bihotzian izango ditugu beti.

Senideak.

ESKELA

Josefa Rajado Rodriguez



2022ko maiatzaren 13an hil zen.

Arrasateko EPA-HHiko Ines gure lankideari bere amaren heriotzean, eskola komunitatea osatzen dugun guztion partetik, gure doluminak.

Arrasateko EPA-HHiko lankideak.

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

Hildakoak

Victor Laskurain Zanguitu
Moises Zubiaurre Bustinduy
Josefa Rajado Rodriguez
Benito Oregi Leturiondo

Jaiotakoak

Ez da jaiotakorik egon



ASKE MAITE ASKE BIZI!

bertako

igogalduak | ascensores

www.bertako.eus

GIPUZKOA 943 903 450

GOKI



erreformak



FATXADA BIRGAITZEAK

S.A.T.E.

FATXADA AIREZTATUAK
BIRGAITZE TRADIZIONALA
BALKOIEN BIRGAITZEA



ESTALKI ETA TEILATUAK

ERABATEKO BIRGAITZEAK
TERRAZA ETA ESTALKI LALUAK
MANTENTZE LANAK
SEGURTASUN SOKA FINKOAK



BARNE ERREFORMAK

ETXEBIZITZAK
LOKAL KOMERTZIALAK
BULEGO ETA ENPRESAK
SUKALDE ETA BAINUGELAK



IRISGARRITASUNA

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEA
IGOGAILU INSTALAZIOAK
O KOIA



BULEGO TEKNIKOA

ERAIKINEN IKUSKARITZA TEKNIKOA
EFIZIENTZIA ENERGETIKOKO ZURTAGIRIAK
ERAIKUNTZA PROIEKTUAK

ELGOIBAR
943 74 42 23

SORALUZE
943 12 57 41

BERGARA
943 76 53 42

SORALUZEEKO AEK EUSKALTEGIA

EUSKARA IKASTARO TRINKOAK UZTAILEAN
MATRIKULA ZABALIK

>16 urtetik gorakoentzat

HABEren B2 eta C1 (EGA) azterketak
prestatzeko aukera

**Herrian bertan,
aukera ezin hobea udan euskara ikasteko!**

Galdetu prezioa -TARIFA BEREZIAK ditugu-
UDAL BEKA sistemari esker

Ikastaroei buruzko informazioa eta izen-ematea:

943 75 14 34 | soraluze@aek.eus

Balategieta, 2

(ekainaren 24 baino lehen eman behar da izena)

